



Gaur goizean baretuko du haizetea. Oraindik arrastoren batzuk ibiliko dira, baina haizerik haundienak bukatuko direla aurreikusi dute. Bolada gogorrenak atzo arratsaldeko 18:00ak aldean hasi zituen, eta Hernanin ederki nabaritu zen

eragina. 120-150 km/h-ko abiadura ibili zuen atzo haizeak, eta kalteak eragin zituen Kaxkoan eta auzoetan. Autobus eta tren zerbitzurik ez zen izan gauean, argia joan zen zenbait auzoetan, eta supermerkatu bat itxi zuten haizearen eraginez. /2

PELOTA - 2010ko E.P.E.L.en Binakako Txapelketa

Finalerdietarako pasea jokoan...

Olaizola IIak eta Mendizabal IIak gaur jokatuko dute, Eibarren, Gonzalez eta Laskurainen kontra.

OIER Mendizabal hernaniarrak eta Aimar Olaizola goizuetarrak gaur irabazi beharra daukate, txapelketako

finalerdietara pasa nahi badute. Aurrean Gonzalez eta Laskurain izango dituzte, irabazi beharra daukatenak,

horiek ere. Eibarko Astelena pelotalekuan neurtuko dituzte indarrak, arratsaldeko 17:00etatik aurrera hasiko

den partiduan. Finalerdietara lau bikote pasako dira, eta gainerako hirurak zein izango diren erabakita dago. /3

◆ BERTSOLARITZA

Xabier Legarreta, Nafarroako finalera

Xabier Legarreta aranoarrak Nafarroako txapelketako finalera kantatuko du datorren martxoaren 20an, Lesakan. Legarretak atzo jokatu zuen finalerdietako saioa Iruritan, eta bera izan zen onena 404,5 punturekin.

Hurrengoak: Zelaieta, 385.

Aleman, 375. Olaetxea 368.

Luze, 358,5. Ibarra, 331. ||

❖ BERDINTASUN SAILA

‘Bertsotrans’ jaia, datorren ostiralean

Bertsoa eta jaia izango dira datorren ostiralean Iparragirre sagardotegian, Berdintasun Sailak antolatuta, eta Emakumearen egunaren bueltan. /7

◆ XAKEA

Haurrentzako txapelketa gaur

Xake txapelketa izango da gaur, 16 urtez azpikoentzat. Kiroldegian jokatzeak baziren ere, azkenean Aristizabal kalean (Aristizabal 3) jokatuko dira partidak. Ume dezente apuntatu direla jakinarazi dute arduradunek, baina oraindik badela aukera animatzen denarentzat. 10:30etan. ||

GAUR KRONIKAN

Jasota Bezala. Andoni Amonarraiz eta Mikel Arrieta /2

KIROLAK. Futbola, Waterpoloa, Judoa... /3

ESKELAK. /7

Chillida Lekuk 10 urte. /8



AUTOTALLERES SANTA BARBARA

HERNANI - 943551139

MEKANIKA ETA KARROZERIA

TURISMOAK - FURGONETAK - IBILGAILU INDUSTRIALA



PEUGEOT

ZERBITZU OFIZIALA

IBILGAILUEN SALMENTA

**KM 0
BERRIAK
BIGARREN ESKUA**

Atzoko haizeteak utzi zuen berea


Argia joan zen auzo batzuetan, kalteak izan ziren, eta autobus eta tren zerbitzurik ez zen izan gauean.

ALERTA egoera zegoen emana atzo arratsaldetik, gaur goizaldera arte. Hernanin ederki nabaritu zen haizetea, 120-150 km/h boladak izan zituen, eta eragina nabaritu zen, kaxkoan eta herriko auzoetan.

Udaltzaingoaren arabera, arratsaldeko 18:30ak aldera argia joan zen Ereñotzun, eta joan eta etorri ibili zen hortik aurrera. Kaxkoan ere argia joan-etorrian ibili zen. Ibarluze eta Fagollaga artean zuhaitzak erori ziren, eta bidea itxita egon zen bolada batean. Lidl

zentrua itxi egin behar izan zuten arratsaldean, teilatuko zati bat erori zitzaiolako. Segurtasun neurri bezala, kontainerak itxi egin zituen San Markosek, eta zabor asko pilatu zuen jendeak bazterretan. Kronikak erredakzioa itxi zue- nean, horiek ziren nabarmen- tzeke gertaera haundienak, baina horrez gain, asko izan ziren haizeak eragindako kalte txikiak.

Gauean zerbitzua eten egin zuten Renfek eta Hernaniko Garayar eta Areizaga autobusek. ■



Udalak hainbat neurri hartu zituen haizetearengatik. Hasieratik hasi ziren kalteak nabaritzen herrian.

❖ TXOTX DENBORALDIA

Zo-zongo perkushow kaleak gozatzen ibili zen atzo

Ez zela giro atzo arratsaldean, baina Zo-zongo perkushow taldeak gozatu zituen, paseatzera animatu zirenak. Perkusioa eta dantza, eta antzerkia... hiru elementuak uztartu eta jendeari saltsa ederra jarri zioten. Atzoko emanaldia Txotx egitarauaren barruan zegoen. ■



❖ ATEZ ATEKOA

Dendari eta tabernariekin bilduko da Udala

Datorren asteazkenean, Hernaniko Udalak bilera egingo du Hernaniko dendari eta tabernariekin, Atez Atekoari buruz hitz egiteko. Hirugarren bilera izango dute, eta aurrekoetan pendiente geratu ziren zantzak izango dituzte hizketa-gai. Bilera, 20:00etan, Biterin. ■

❖ MUSA - TXANTXANGORRI

Partida garrantzitsuak

Txantxangorriko mus txapelketa aurrera dijoa, eta aste honetan partida garrantzitsuak dituzte:

FINAL ERDIAK - BANAKA - Asteartea
Bixente Goikoetxea-Juan Otaegi
Jose Leon-Pablo Ruiz

FINAL LAURDENAK - BINAKA - Asteazkena
Mauri-Txanpi / Goñi-Bilbao
Txitxo-Aritz / Otegi-Galan
Monroy II-Txato / Jose Leon-Patxi
Jonkar-Joseba / Pablo-Felix

❖ ODDOL EMAILEAK

Odola emateko eguna asteartean

Odol emaleek astearte honetan izango dute aukera odola emateko. Hileroko lehendabiziko asteartean izaten dute odola emateko eguna, eta organo-ematea egiteko aukera ere izaten da. Datorren asteartea, martxoak 2, zita dute beraz, Hernaniko anbulatorioan, 18:30etatik 20:30etara. ■

🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefona. ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Legalitatea, errealtatearen aurrean

Hiru gertaera bizitu genituen joan den astearteko plenoan: Lehendabizikoa: Alkateak hautsi egin zuen Araudi Organikoa, ez zuelako utzi plenora eramaten Atez Atekoari buruz EAJ-PNVk eskatutako informetik. Autoritate demostrazio hori justifikatzeko, Alkateak emandako arrazoia izan zen, berak erabaki deza- keela, zein gai diren urgen- tziakozkoak batzordetik pasa gabe plenora eramateko. Garbi dago, gure Alkatearentzat ez duela urgentziarik, jakite- ak, isunei buruz ari garenean, ea legezkoa den, Hernanin daukagun ordenantza gogo- rrena eta desorekatuena apli- katzea. Bere iritziz, legalitatea betetzen du, baina denok eza-

gutzen dugu errealtatea.

Bigarren gertaera: Garbi ikusi genuen Ezker Batuak bat egiten duela Gobernu Taldearekin Atez Atekoari bu- ruzko puntu guztietan, nahiz eta, demonstratu den, faltsuak direla ematen ari zaizkigun datuak. 10 langilerekin bildu- ko omen dira herriko zabor guztiak, dakigunean, Vilassar herrian (19.000 biztanle), 50 langile behar izan zituztela. Langile haien TC2ak dauzka- gu, eta horrek erakusten digu, 3.844.615€ beharko direla soldatak ordaintzeko; Gobernu Taldearen proposa- menean, EBk onartu zuene- an, soldata gastuak 644.121€ dira. Esan digute, ontziak eta papera Ecoembes enpresari salduta 509.939€ lortuko ditu- gula (Ecoembes hondakinak kudeatzera dedikatzen da).

Errealtateak dio, ordea, otsailaren 23an enpresa horrek berak eman dizkigun datuak bestelakoak direla, alegia, 63.998€ gutxiago ira- baziko ditugula; alegia, pre- zioak puztu egin dituztela, euren kontuak ondo eman dezaten. Planteamendu erre- ala da, gurea bezalako herri bateko esperientziari errepa- ratzen badiogu, eta gure datuei begiratzen badiogu, urteroko defizita 1.675.878€ ingurukoa izango dela. Uste dugu borobila lauki bihur- tzea lortu dugula, alegia, herri baten gehiengo proiek- tuaren kontra dagoela, eta era berean, hondamendi ekono- mikoa lortuko dugula. Pausoak legezkoak izango dira, baina erakutsi diguten errealtatea ez da hala.

Hirugarren gertaera: au-

rrekoarekin nahikoa ez, eta, Gobernu Taldeak eta Ezker Batuak hitzarmen bat onartu dute, eta horren arabera, Hernaniko Udalak etxea eraiki- tzeke baimena eman behar die, eta diruz ordaindu, Leo- ka labaderoko horretan erdi erorian zegoen etxearen jabe- ei, 1.141.074 euro; eta dena zubi zaharraren bi begi age- rian uzteagatik. Ez al zaie go- goratuko zubiaren begi guz- tiak bistan uztea! Eta ez al zaie ordaindu beharko zubia- ren alde batera eta bestera bizi diren guztiei! Batek daki. Legez hartutako erabakia hori ere, baina gure errealti- te ekonomikotik urruti da- goena.

Andoni Amonarraiz Gómez
EAJ-PNVko bozeramalea
(*erredakzioan euskeratua)

Vilassar de Mar: zabor tasa 148 euro

Azken egun hauetan Hamaika Bat alderdiak gonbidatuta Vilassar de Mar herriko alkatea izan dugu gure artean. Egin dako adierazpenetan detailtxo bat ahaztu zaie esatea: Vilassar de Mar herrian zabor bilteta- rengatik 148 euro ordainduko dute 2010ean. Hernanin baino 65 euro gehiago; hau da % 75 gehiago ordaintzen dute zerga honetan. Vilassar de Mar he- rrian Donostian baino gehiago ordaintzen dute.

Vilassar de Mar herrian bos- garren kontenedorea dute, beraz, bosgarren kontenedorea defendatzen dutenek ez dute defendatzen bakarrik ingurugi- roaren aldetik sistema atzerakoi bat, aldi berean oso sistema garestitaren alde egiten ari dira.

Mikel Arrieta Iraola

◆ PELOTA - Olaizola II-Mendizabal II / Gonzalez-Laskurain, gaur, 17:00etan, Eibarren

Ez dago berriketarik, hil ala bizi!

EZ dago berriketarik. Gaur irabazten duenak lortuko du finalerdietara pasatzea. Izan Mendizabal II eta Olaizola II, izan Gonzalez eta Laskurain, gaur irabazi beharra daukate txapelketan bizirik segi nahi badute. Lehen faseko azken partidua jokatuko

dute gaur Eibarren, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, eta postua jokoan duten bakarrak dira, gainerakoak erabakita baitaude. Finalerdietara lau bikote pasatzen dira, eta beste hirurak zein diren badakigu: Mtz Irujo-Beroiz, Titin III-

Pascual, eta Xala-Zubieta.

Asko dago jokoan

Oier Mendizabal eta Aimar Olaizolak asko dute jokoan, beraz. Azkeneko bi finaletan izan dira: orain bi urte irabazi egin zuten; iaz galdu.

Aurten, finala jokatzez gero, lehenengo biharko partidua irabazi beharko dute; gero gerokoak.

Asegarcerentzat ere hil edo bizikoa da gaurko partidua, enpresako bikote bat finalerdietan sartu nahi badu. ||



Oier Mendizabal pelota astintzen.

◆ ARRANTZA

Javier Egibar Euskadiko arrantza txapelketarako sailkatu da

Aurreko asteburuan jokatu zen arrantza txapelketa ospetsu eta zailean, Hernaniko Javier Egibarrek lan ederra egin zuen, eta Euskadiko Txapelketara sailkatu zen. Hondarribian jokatu zen kosta eta itsasoko arrantza txapelketa, 6 ordu ingurukoa, eta Hernaniko Txantxangorri elkarteak 5 arrantzale eraman zituen. Egibar izan zen onena; 17garren postua lortu zuen, eta justu, baina Euskadiko txapelketarako pasea lortu zuen. Ez da kasualitatea Egibarrek egindako lana. Aurreko Gipuzkoako elkarte arteko txapelketan, 200 parte hartzailetik 27garren geratu baitzen. ||



◆ FUTBOLA

Irabazi beharreko partidua gaur, Zubipen, azkena dijoan Real Unionen kontra

Igoera faseko bosgarren partidua jokatuko du gaur Hernanik, Real Union taldearen kontra, arratsaldeko 18:00etan, Zubipen. Hernaniarrak lehendabiziko postuan daude, Eibar taldearekin berdinduta, eta Real Union berriz, gaurko aurkaria, azken postuan dago. Hernaniarrek lau partidutik hiru irabazi dituzte, eta bat berdindu. Gaur irabazteko partidua dute. ||

◆ WATERPOLOA

Ligako bigarrenaren kontra gaur

Sestaoko Maristas taldearen kontra partidu gogorra jokatuko du gaur Hernanik, Hernaniko kiroldegian, 12:30etan. Euskal Herriko 2. mailan, bigarren dijoa Maristas, eta Hernani hirugarren. ||

◆ ATLETISMOA

Iruretagoyenak Junior mailako Gipuzkoako errekorra jarri zuen, 200 m-an

Espainiako txapelketa jokatuko du asteburu honetan Maitane Iruretagoyenak, Valentzian. 60 metroan lehiatuko da, Espainiako onenekin, eta animoz joango da, joan den asteko emaitzak ikusita. Joan den astean, 200 metroan irabazi egin zuen, eta junior mailako Gipuzkoako errekor berria jarri zuen, 24,79 denborarekin. 60 metroan zilarrezko domina lortu zuen. ||



◆ JUDOA

Mireia Rivasek eta Maider Lazkanok saria, eta Gipuzkoakora pasa ziren beste 11 judoka

Hernanin, infantil eta alebin mailako Judo txapelketa jokatu zen joan den astean, eta Mireia Rivasek eta Maider Lazkanok hirugarren saria irabazi zuten. Xabier Jauregik laugarren postua lortu zuen, kategoria oso gorrean, 66 kg-an hain zuzen. Horiek, eta beste hernaniar hauek sailkatu ziren Gipuzkoako txapelketara: Maddi Alberdi, Amaia Lazkano, Ane Markina, Nagore Eizagirre, Alaitz Lakadena, Maialen Avila, Uxue Alberdi, Iñigo Imaz, Mikel Rivero, Luis Galardi, Aitor Tobar, Raul Mahi eta Jon Bravo. Gipuzkoako txapelketa maiatzan jokatuko da Hernanin. ||

MARTXOAK 8 EMAKUMEEN EGUNA

Bertsotrans
Emakumeen eta Trans guztien izatea aldarrikatzeko jaia

MARTXOAK 5 EAN BERTSOTRANS
IPARRAGIRRE SAGARDETEGIAN.

EMAKUMEEN ETA TRANS GUZTIEN ALDARRIKATZEKO JAIA

Txartelak salgai TRIPONTZI eta ZUMITZA tabernetan

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

ZURE HAZI ETA ONGARRI DENDA HERNANIN

HAZI TA HEZI

JUANA MARI

Kardaberaz 49 behea HERNANI • 943 553380 • denda@juanamari.org

Agin Rezola 25 urteko astigartarra da. Info 7 irrati esataria da eta 2010eko Argia Saria eskuratu du, bere arratsaldeko saioan, *Bostetako dili-jentzia*, 2009 urtean egindako lanagatik. Gaztesarean eta Euskadi irrati lan egin ondoren, Info 7 irrati pasatu zen. Albistegietan hasi, eta ondoren, *Bostetako Dili-jentzia* izeneko magazina gidatzeari ekin zion. Bi urte daramatza jada aire-

an, eta arratsaldero emititzen da 5etatik 6etara. Bestalde, bertsolaria ere bada Agin, Hernaniko bertso-eskolako kidea da, txapelketa batzuk irabazitakoa; esaterako, 2001 urtean Gipuzkoako Eskolartekoa, eta iaz Lizardi sari famatua. Eta, hau guztia gutxi balitz, Astigarragan, bere familiak Rezola sagardotegia du, eta bertan ere burubelarri aritzen da lanean.

AGIN REZOLA - Bertsolaria, irrati esataria, sagardogilea...

«Saria egindako lanaren ondorioa da, eta horregatik, ilusioa izugarri handia da»

Estitxu Neira

Zer sentitzen duzu hain gazte, oraindik ibilbide profesional laburra izanik, Argia saria jasotzean?

Lehendabiziko gauza, sorpresa handia izan zen. Ez nuen lan egin saria lortzeko asmoz, baizik eta saria egindako lanaren ondorioa da. Eta noski, horregatik, ilusioa izugarria da.

Saria emateko garaian, zure saioan egindako Bertsolari txapelketako emanaldia azpimarratu zuten, lan handia suposatu zuen emanaldi hark?

Bai, batez ere lan extra izan zelako. Hau da, eguneroko saioa ere egiten jarraitzen genuen. Horregatik, astea bost lan eguneko beharrez, hogeita bat eguneko bilakatu zen; eta nekegarria bihurtu zen. Esaterako, azaro osoan jai egun bakarra izan genuen. Oso gogorra egin zitzaigun, baina atzera begiratu, pena merezi izan du.

Zer dela eta uste duzu izan zuela hain harrera ona txapelketako jarraipenak?

Nire ustez hainbat faktoreek eragin dute. Alde batetik, zuzeneko emanaldia zen, eta ez zegoen saio guztiak zuzenean emango zituen beste irratiarik. Bestetik, adituen ekarpenak izatea. Eta azkenik, nik mundu hori oso oso gertutik ezagutzen dudala. Hau da, beste arlo bateko txapelketa bat emango banu, demagun, gimnasia erritmikokoa; ziur aski ez nuela erakargarritasun bera izango, ezta analisi eta kontaketarako gaitasun bera ere. Eta nola ez, ez nuen jakingo adi-tuari nondik tira egin.

Zu bertsolaria izanik, berezia izan zuen zuretzat emanaldi hura gidatzea?

Niretzat abantaila izan zen, aurretik aipatu ditudan arloetan lagundu naueko bertsolaritza mundua ezagutzea. Baina, aldi berean, desabantaila ere izan zen; azken batean nire



Agin Rezola (behean eskubian) aurtengo Argia Sariak banatu ziren egunean, gainontzeko saridunekin batera.

lagunak epaitzen ari nintzelako edo behintzat haiekiko iritzi bat ematen, eta askotan eurekin batera sufritzen nuen.

Oso ongi jarraitu duzu txapelketa, alde batetik, bertsolaria izanagatik; eta beste-

tik, irrati saio guztiak zuzenean jarraitu dituzulako. Beraz, zer azpimarratuko zenuke txapelketatik?

Gauza bat baino gehiago azpimarratuko nituzke. Adibidez, antzeman dudana gauza bat, saio guztietan emakumeren bat egon izana da. Agian

zozketak eta baita zorteak ere zerikusi handia izan dute, baina seikotero gutxienez emakumezko bat egon da. Eta, ez dut uste hori orain arte gertatu izan denik. Gainera, oso maila ona eman dute emakumeek. Beno, orokorrean oso maila ona egon da txapelketa honetan.

Bertsolaritza munduan zaude; txapelketaren emanaldia egin duzu, bertso eskolako kide zara... baina, eskaintzen al diozu denbora bertsoak egiteari?

Ez du ematen, baina bai! Astero elkartzen gara bertsotan aritzeko.

«Bertsolari txapelketako emanaldia oso gogorra egin zitzaigun, baina atzera begiratu, pena merezi izan du.»

«Egunerokotasun bat eraman ez arren, ni neu ere saiatzen naiz dudana bertsolari txikia hazten.»

«Askotan zalantza daukat bertsolaritzak lagundu ote didan bat-batean hitz egiteko erraztasunean, edo hitz egiteko trebeziak lagundu didan bertsolaritzan.»

«Txirrindularitzako etapak emateko proposamena egin dut Info 7-n, eta onartu dute»

Bertsoak aurpegi asko ditu, eta horietako bat lagun artekoa da, niri asko gustatzen zaidana. Bertsolaritzak lagun asko eman dizkit eta horiekin oso ondo pasatzen dut bertsotan. Horretaz gain, egunerokotasun bat eraman ez arren, ni neu ere saiatzen naiz dudan bertsolari txikia hazten.

Beraz, ez duzu alde batera uzten zure bertsolari karrera? Bidea haunditzea gustatuko litzaizuke?

Bai noski. Ez dut inolaz ere baztertua uzten. Euskal Herriko txapelketa ez nintzen pasa, baina, hurrengo txapelketan parte hartzeko aukera

izango banu, zalantzarik gabe berriz ere parte hartuko nuke.

Bertsolaria izateak, eta inprobisatzera ohitua egoteak, irratiko lanean lagundu dizu; adibidez, zuzenean gidatzen duzun magazinera?

Askotan zalantza daukat bertsolaritzak lagundu ote didan bat-batean hitz egiteko erraztasunean, edo alderantziz izan den, hau da, hitz egiteko trebeziak lagundu didan bertsolaritzan. Nire ondorioa da, elkar laguntzen duten arloak direla.

Zure beste afizio bat kirola izanik,

zure irratiko karrera hortik bideratzea gustatuko litzaizuke?

Bai, eta gainera badut asmoa. Tro-pela.net-ekin batera txirrindularitzako etapak emateko proposamena egin dut Info 7-n, eta onartu dute. Oraindik ezin dut askorik zehaztu, bakarrik maiatzetik aurrera izango dela.

Kirolari buruz hizketan, ezinbesteko galdera, igoko al da aurtien Erreala lehen mailara?

Bai, nik uste dut baietz. *Bostetako dili-jentzia* gainera, errealak bazuen bere protagonismoa, astelehenenetan asko sufritzen genuen. Eta ni, baikor naiz.

«Etorkizunean, irratia eta sagardotegia bateratzen ikusten dut neure burua»


Orain, sagardotegi garaian murgilduta gaudenez, sagardotegiaz arduratzeko irratiko lana utzi duzu, ezta? Zenbat denboraz?

Irailera arte uzteko asmoa nuen, baina, esan bezala, txirrindularitzako etapak ematen baditugu, maiatzean hasiko naiz berriz ere. *Dilijentzia* irailera arte ez litzateke itzuliko, eta iraillean itzuliko den ere ez dakit.

Zuen sagardotegiak badu zerbait berezia, alkoholik gabeko sagardoa, hain zuzen ere. Arrakastarik ba al du jende artean?

Bai, ingurukoen artean ez hainbeste oso sagardo zaleak baikara, baina kanpotik datorren jendearen artean badu arrakasta. Marketing-a da gehienbat, baina jendearen belarrietara iritsi da, eta hori ez da gutxi. Gehienbat umeek txotx egin ahal izateak bultzatzen du sagardo hau, eta umeek ekartzen dituzte gurasoak sagardotegira, alderantziz izan beharrean.

Sagardotegi eta irratiko lanek ez dute inolako zerikusirik. Biak egiten dituzu, baina zein da gehien gustatzen zaizuna? Nik beti esaten dudana bezala, irratia aukeratu det eta sagardotegia tokatu egin zait, eta hor ezberdintasun haundia dago. Sagardotegian ez



Agin Rezola, sagardotegi atarian.

nago gogoz kontra, baina kazetaritza mundua dut gustuko.

Beraz, etorkizunean kazetaritza lanean zentratuta ikusten duzu zeure burua?

Ni *miopia* naizenez, hori ikusteko zailtasunak dauzkut. Nik oso bizitza aldakorra daukat, denbora luzean gauza bera egiten aspertu egiten naiz. Horregatik, etorkizunean, irratia eta sagardotegia bateratzen ikusten dut neure burua.

«Txirrindularitzako etapak ematen baditugu, maiatzean hasiko naiz berriz ere irratian. *Dilijentzia* irailera arte ez litzateke itzuliko, eta iraillean itzuliko den ere ez dakit».

«Ni *miopia* naizenez, nire burua kazetaritzan zentratua ikusteko zailtasunak dauzkut. Nik oso bizitza aldakorra daukat, denbora luzean gauza bera egiten aspertu egiten naiz».

ASTE SANTUA: ZIRKUITOAK AUTOBUSEZ

ASTURIAS
HOTELA 2** - MP

275'00€



FUTUROSCOPE 285'00€
LOIRAKO GAZTELUAK eta ROCHELLE
HOTELA 1* - AD

MADRIL 295'00€
ARANJUEZ eta TOLEDO
HOTELA 4****- AD

BARTZELONA LITERARIOA 299'00€
HOTELA 4**** - AD



GIRONA 299'00€
HOTELA 3*** - MP



LOIRAKO ERIBERAK 450'00€
TURONIENSE BIDEA
HOTELA 2**- AD



Irteerak Donostiatik,
apirilaren 1-etik 5-era.



HERNANI
BIDAIK

Urbietan, 6
943 33 00 49
hernanib@telefonos.es
www.hernanibidaia.com

Hernanik kronika

10 . u r t e u r r e n a

Martxoaren 12an
Ilunabarreko 20:00etan
Larre-Gain Sagardotegian


LARRE-GAIN
SAGARDOTEGIA



AFARIA
SAGARDOTEGIKO MENUA

IRAULIO PANTTALONE
HERNANIKO BERTSO ESKOLA



I. ZELAIA



U. AGIRRE



X. LEGARRETA

BERTSOLARIAK



KONTZERTUA

Txartelak Salgai
35'00 €

SALGAI
ARALAR TABERNAN, OINDI TABERNAN,
LARRE-GAIN SAGARDOTEGIAN eta
HERNANIKO KRONIKAN (Larramendi 11)

HERNANIKO KRONIKA 10. URTEURRENA

DOBERA-KRONIKAKO BAZKIDE IZAN NAHI DUZU?

Hernaniko Kronika egunero eta dohainik kalean izateko, urtero 450 bazkideren laguntza jasotzen dugu. **Dobera Euskara Elkarte**ko **bazkideak** dira: elkarrekin egiten dituen ekin-tzelarako ematen dute diru-laguntza, eta horien artean Hernaniko Kronikarentzako. Gure proiektua haunditzen djoan neurian, bazkide beharra ere haunditzen djoa, eta 10. urteurrena dela eta, bazkide berriak lortzeko kanpaina jarri dugu martxan. Laguntzaileei esker, **bakoitzak 35€ko laguntza ematen digulako**, Hernaniko Kronika dohainik banatzen da, eta gero eta herriar gehiagorengana iristen da.

Zuk ere Dobera-Kronikako laguntzaile izan nahi duzu,
baietz?

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

K/k ZENBAKIA: _____

Bete goiko datuak eta entregatu ezazu bono hau Zinkoenea, Konde, Antziola Okindegia, Irigoenea Okindegia, Bikain Okindegia, Dorronsoro Okindegia edota Larramendi, 11n dugun bulegoan.

Gainontzeko behar ditugun datuak galdetzeko, telefonoz gu jarriko gara zurekin harremanetan.

Hernanik
kronika

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

MARTXOAK 8 EMAKUMEEN EGUNA

Bertsotrans

Emakumeen eta Trans
guztien izatea
aldarrikatzeko jaia

Ostiraleko 'Bertsotrans' jaieko kartela, Ainara Azpiazu 'Axi' -k egin.

'Bertsotrans' jaia martxoaren 5ean

Emakumeen egunaren bueltan, aurten, emakumeen eta trans guztien izatea aldarrikatzeko jaia antolatu dute.

MARTXOAK 8 Emakumearen eguna da, eta Berdintasun Kontseiluak eta Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailak *Bertsotrans* jaia antolatu dute martxoaren 5ean, ostirala.

'Bertsotrans'

Bertsotrans jaia emakume eta trans guztien izatea aldarrikatzeko antolatu dute. Afaria,

antzerkia eta bertsoak uzartuko dira, aldarrikapena jai giroan ospatzeko.

Jaia martxoaren 5ean izango da, Iparragirre sagardotegian, 20:00etan hasita. Afariaz gain, *King Kong Neska* izango da, Josune Montonek antzeztuko duen ikuskizuna. Ondoren Bertso-saioa izango da, eta kantuan: Maialen

Lujanbio, Estitxu Eizagirre, Aitor Mendiluze eta Uxue Alberdi. Gai jartzaile lanetan ariko dena berriz, Eñaut Agirre izango da.

Afarirako txartelak dagoneko erosi daitezke, Zumitza eta Tripontzi tabernetan, 29,50 eurotan, eta martxoaren 3ra arte izango da erosteko aukera. ||



Antzerki zikloak agerian utzi du, berriz ere, hernaniarren antzerki zaletasuna. Antzerki zikloa asteazkenean bukatu zen eta oraingoan ere, esperotako arrakasta izan du. Astelehenean hasi eta astezkenera bitarte hiru antzezlan izan dira ikusgai; egun bakoitzean bana. *Agussssto*, *Aitarekin bidaian* eta *Xabinaitor* antzezlanak, hain zuzen ere. Gustu ezberdinetako pertsonentzako antzezlanak izan dira ikusgai eta hiruretan izan da aretoa bete. Guztira 500 sarrera inguru saldu dira eta lehenengo egunetik hasita jende mordoa gerturatu zen Biterira sarrera bila. Beste behin ere agerian geratu da hernaniarren antzerki zaletasuna eta antzerki zikloak duen harrera ona. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II. URTEURRENA

Manuel Iturbe Agirrezabala

2008ko otsailaren 28an hil zen, 82 urte zituela

*Enbor sendoa izan zera zu
zure adaskak gu gera
adaska hoi fruituak ere
dijoazenez aurrera
zu eredutzat hartuta denok
jarraituko deu batera*



ZURE EMAZTEA PEPI, SEME-ALABAK
ETA BILOBAK

Urnietan, 2010eko otsailaren 28an


XIV URTEURRENA

Joxe Mari Larretxea Goñi

1996ko otsailaren 29an hil zen

HABANAN DEPORTAZIOAN HIL ZEN

BORROKA ETA BIHOTZA
EUSKAL HERRIAN ZITUELA



ZURE FAMILIA.
BETI GOGOAN IZANGO ZAITUGU.

Hernanin, 2010eko otsailaren 28an.

ALTZUETA

SAGARDOTEGIA



*Asteartetik
larunbatera
gauez irekita
larunbatetan
eguerdian irekita*

www.altzuetasagardotegia.com - tel. 943 55 15 02 - Osinaga Auzoa, 7 - Hernani

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta fina

Eguneko menuak
Kudrilako bazkariak
Karta
Abenduaren 24tik, Urtarrilak 3ra arte
ITXITA (biak barne)

Egunero zabalik
Ondo pasa Gabonetan !!

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

mikel armendariz

proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Vanesa eta Miguelo
Harategia eta aurrez egindako janaria

Larunbata eta igandea goizez irekita
Egin zure enkargua !!
Aukera zabala

ASTEBURU HONETAN :

1kg TXISTORRA OILASKOA sagardo bot. 11,95€	1kg TXISTORRA 1kg ALBONDIGAK sagardo bot. 11,95€
--	--

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarquetarako: 943 55 03 32


TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauetz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA



GAUR Goizaldean oso gogor joko du haizeak gaur ere. Atzo hegotik zen, eta mendebaldetik joko du gaur. Eguerditik aurrera indarra galduko du. Min.9° / Max.15°



BIHAR Bihar goizean laino, eta haizea bizi, mendebaldetik. Arratsaldera eguzkia ikusiko dugu, eta goxatu egingo du. Gauean lainoak nagusi. Min.8° / Max.14°

(euskalmet)

❖ CHILLIDA LEKU - 10garren urteurrena



Argazki erakusketak jende dezente bildu zuen lehendabiziko egunean, Chillida Lekun.

Zabalagako izaera eta poesia ikusgai, argazkitan, bi hilabetez

Zabalaga baserria berri zutenekoa irudikatzen duen argazki erakusketa zabalik dago. Giuliano Mezzacasaren argazkiak dira.

CHILLIDA Leku museoak 2000 urtean zabaldu zituen ateak eta aurten 10garren urteurrena ospatzeko ekitaldiak izango dira. Ostegunean izan zen lehenengoa. *Zabalaga, poesia eta erakuntza* izeneko argazki erakusketa aurkeztu zuten ehun bat pertsonen aurrean.

Erakusketan azaltzen diren argazkiek biltzen dute Zabalaga baserriaren berritze prozesua. Giuliano Mezzacasak (Italia, 1938) ateratako argazkiak dira, eta irudi horietan biltzea lortu du eraikinak daukan izaera, eta barruko poesia. Mezzacasak gogoan izan zuen Eduardo Chillida, eta eskerrak eman zizkion baserria berri-



Giuliano Mezzacasa argazkilaria.

tzeagatik eta argazkiak egiteko aukera emateagatik. «Izugarri gozatu nuen. Espero dut argazkiak zuen intereseak

izatea eta gutxienez, nik gozatu nuenaren erdia gozatzea», azaldu zuen ekitaldian.

Iagoba Fanloren kontzertua eta koktela

Erakusketa zabaldu aurretik, kontzertua eman zuen Iagoba Fanlo biolontxelo-joleak. Berak azaldu bezala, Chillidaren konpositore gustokoenaren, hau da, Bach-en obra jo zuen. Bere Sei Suite-tatik lehenengoa, hain zuzen ere.

Kontzertu ostean, argazki erakusketa ikusteko aukera izateaz gain, mokadutxo bat jan eta ardo beltz ederra probatzeko aukera izan zen, Ysios-en eskutik. ||

❖ ZINEA

'Lluvia de albondigas' gaztetxoentzat, eta 'Nine' helduentzat

Gaur, igandero bezala, bi pelikula emango dituzte Biteri kultur etxean. Arratsaldeko 17:00etan, gazteentzako, *Lluvia de albondigas* eta arratsaldeko 19:30etan, helduentzako, *Nine*. ||

Atez ateko zalantzak argitzen

Plastifikatutako papera, arrandegietan-eta erabiltzen dena, nora bota behar da?

Ontzi arinen poltsara.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



hernani
UDALAK

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Erreferentziadun emakumea asteburuetarako lan bila dabil (taberna, garbiketa...).

Deitu: 659 161 425.

Urrezko Erreztuna galdu zen asteartean Latsunbetik Kale nagusira bidean. Aurkituz gero

deitu: 943 55 23 98 / 635 006 447

Pisua salgai Karabelen. 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua.

Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro.

Deitu: 629 763 041.

ETXEXO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai...

Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabetezko eskaintza: %20 aren deskontua 1.

sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzietza 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfático... Antzietza 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Zure arazo eta blokeo pertsonalekin lagunduko zaitut. Bide hauek erabiliz: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach... (Alicia C.C.). Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

ZORIONAK MARTA

MILAKA MUXU
FAMILIA ETA LAGUNEN
PARTETIK

Amegar

Etxe Tresnak - Altzariak

Erabili ezazu BERRIAK txartela

Ordaintzeko erraztasunak
- Finantziaketa -
- 12 hilabetetan interesik gabe -

Txirrita kalea, 13-15 Tel.: 943 55 11 25 - Faxe: 943 55 16 03

ARALAR

TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

ALBERRO

SAGARDOTEGIA

Tolare sagardotegia

943 55 00 19

Santa Barbara auzoa, 61
HERNANI